



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Abanto-Zierbenako Udala

Abanto Zierbenan beren jarduera gauzaten duten txikizkako saltokiei eta ostalaritzari, eta Abanto Zierbenan egoitza fiskala duten beste autonomo batzuei zuzendutako dirulaguntzak esleitzeko deialdiaren oinarri arautzaileak.

2020ko maiatzaren 29ko 617 ADaren bidez, onetsi egin da 2020ko maiatzaren 6ko osoko bilkuran Udalbatzak hartutako erabakiaren arabera (haren bidez erabaki zen 2020ko aurrekontua betearazteko udal-araua aldatzea) dirulaguntzen ezohiko deialdia.

Horren berri ematen da guztiek jakin dezaten; eta, horretarako, dirulaguntzaren oinarri osoak argitaratuko dira.

Abanto Zierbenan, 2020ko maiatzaren 29an.—Alkatea



**ABANTO ZIERBENAN JARDUTEN DUTEN TXIKIZKAKO MERKATARITZARI
ETA OSTALARITZARI ETA EGOITZA FISKALA ABANTO ZIERBENAN DUTEN BESTELAKO
AUTONOMOEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN
OINARRI ARAUTZAILEAK, ABANTO ZIERBENAKO JARDUERA EKONOMIKOA
SUSPERTZEKO COVID-19AK ERAGINDAKO ALARMA-EGOERAREN
DEKLARAZIOAREN ONDORIOZ**

1. Oinarrien xedea

Deialdi honen xedea da Abanto Zierbenan jarduten duten eta publikoarentzat irekitako establezimenduak dituzten txikizkako merkataritza, ostalaritza eta udalerrien egoitza fiskala duten bestelako autonomoei laguntza ekonomikoak esleitzea, COVID-19ak eragindako alarma-egoeraren deklarazioaren ondoriozko egoerari aurre egiteko.

Alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10.1 artikuluan, debekatu egiten da txikizkako lokal eta establezimenduak publikoarentzat irekitzea, honako salbuespen hauek izan ezik: elikagai eta edarien txikizkako merkataritza-establezimenduak, premia biziko produktu eta ondasunen dendak, farmazia- eta osasun-establezimenduak, albaitaritza-zentro eta -klinikak, optikak eta produktu ortopedikoak, produktu higienikoak, ekipamendu teknologikoak eta telekomunikazioak, konpainia-animalientzako elikagaiak, Internet bidezko merkataritza, merkataritza telefonikoa edo posta bidezkoa, tindategiak, garbitegiak eta etxez etxeko ile-apainketa zerbitzuak. Edonola ere, eten egingo da agintaritza eskudunaren ustez jarduera gauzatzen ari den baldintzak direla-eta kutsatzeko arriskua izan dezaketeko establezimenduen jarduera.

Alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, bereziki kontuan hartuta alor guztietan izan duen eragina eta horren ondorioak, besteak beste COVID-19 koronabirusak eragindako krisi ekonomiko larria, berehalako jarduketa-neurriak hartu behar izan dira eragin ekonomikoak arintzeko eta Abanto Zierbenako jarduera ekonomikoa sustatzeko.

Abanto Zierbenako Udalak beharrezkotzat jotzen du nahitaez jarduera eten behar izan duten kolektiboek laguntzea, baita fakturazioan gutxienez %75eko murrizketa izan dutenei ere aurreko seihilekoko batezbestekoarekin alderatuta, jarduera-murrizketak edo -eteteak izandako eragin ekonomikoa arintzeko eta hura berriz garatzeko agintari eskudunak horretarako baimena ematen duenean.

Gure udalerriko ehun ekonomikoa berraktibatzeke, 200.000 euroko aurrekontua izango duen ezohiko laguntza-ildo bat onetsi da, tokiko garapenerako eta sustapen ekonomikorako jarduketentzat.

Oinarri hauen xedea da COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeratik euren jarduera aldi baterako itxi behar izan duten edo fakturazioaren murrizketa izan duten saltegi, ostalaritza-establezimendu eta enpresari autonomoen kalte ekonomikoen eragina murrizteko laguntza-ildo baten esleipena arautzea.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde batzuetatik (publiko edo pribatuak, nazionalak, nazioartekoak edo Europar Batasunekoak) eta nazioarteko erakundeetatik jasotako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, betiere jasotako laguntzen zenbateko totalak ez baditu gainditzen COVID-19ak eragindako galera ekonomikoak.

Halaber, kontuan hartu behar da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzen duela, eta, ondorioz, ezin dela bulego edo instalazio publikoetara joan zerga-betebeharrak betetzera. Horrez gain, osasun eta langileen arloko organo eskudunek hainbat ebazpen eman dituztela aurrekoak ez diren lan-modalitateak ahalbidetzeko eta udal-instalazioetan langileen presentzia minimizatzeke; beraz, laguntzak modu telematikoan izapidetuko dira.

Aurreikusitako jarduketak premiazkoak dira, eta lotura zuzena duten alarma-egoerarekin eta haren ondorioekin. Hori dela eta, 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, ez da epeen etetea aplikatuko prozedura honetan.



2. Laguntzaren onuradunak

Honako hauek izan ahalko dira laguntza hauen onuradunak:

1. Abanto Zierbenan publikoarentzat irekitako ostalaritza-establezimendu baten edo txikizkako komertzio baten titularrak, forma juridikoa edozein delarik ere.
2. Egoitza fiskala udalerrian duten eta merkataritza eta ostalaritzakoak ez diren beste sektoreetan jarduten duten enpresari indibidual autonomoak.

Bi kasuetan, baldintza hauek bete beharko dira:

- Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi behar izana edo, alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturalaren batezbestekoarekin alderatuta, laguntza eskatu aurreko hilean euren fakturazioan gutxienez %75 murrizketa jasan izana. Pertsona fisiko edo juridikoak ez baditu bete diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko eskatutako sei hilabete naturalak, jarduera-epea hartuko da kontuan baloraziorako.
- Gizarte Segurantzaren araubidean, dagokion mutualitate profesionalean eta Foru Ogasunean izena emanda egotea eskaera aurkezteko unean.
- Ordainduta edukitzea Abanto Zierbenako Udalarekiko betebeharrak, bai zergekin lotutakoak eta bai gainerakoak.
- Ez betetzea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarrak, eta, bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren (GSDO) zerga-betebeharrak ordainduta edukitzea. Baldintza hori eskaera aurkezten den egunetik dirulaguntzaren ordainketa-egunera arte bete beharko da, hala badagokio.
- Ondasun-erkidegoei eta sozietate zibilei dagokienez, soilik erkidegoko norberaren konturako langile batek eskatu ahalko ditu laguntzak.
- Deialdi honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta euren jarduera guztiz eten badute COVID-19ak eragindako alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, jarduera hilabeteko epean berrabiarazi beharko dute, alarma-egoeraren amaiera deklaratzeko denetik edo agintari eskudunak etendako jarduera berriz garatzeko baimena ematen duenetik aurrera zenbatzen hasita, eta jarduerari gutxienez sei hilabetez eutsi beharko diote, jarduera berriz hasi zenetik aurrera zenbatzen hasita.

3. Laguntzaren xede diren ekintzak

Laguntza hauen xedea da Abanto Zierbenako txikizkako merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduen eta norberaren konturako langileek jasandako eragin eta galera ekonomikoak ahalik eta gehien murriztea, baldin eta jarduera eten behar izan badute edo euren fakturazioa murriztu bada COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat, zeina deklaraziotik eratorritako egoera kaltegarriaren konpentsazioak aurreikusi gabe argitaratu den.

4. Laguntzen esleipen-prozedura eta zenbatekoa

Deialdi honetan aurreikusitako zenbatekoa 200.000 eurokoa da, eta Udalaren 2020ko aurrekontuaren kargura ordainduko da. Laguntza gehienez 900,00 eurokoa izango da.

Laguntza hauek esleitzeko prozedura norgehiagoka izango da. Laguntzak esleitzeko, kontuan hartuko dira publizitate-, berdintasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak.

Laguntza esleitzeko zaie oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenei, jarraian zerrendatzen diren irizpideei jarraikiz eta deialdian eskuragarri dagoen finantzazioa agortu arte.

Laguntzak kudeatzeko, AZZ, S.A., enpresa izendatu da erakunde kolaboratzaile, eta hura arduratuko da aurkeztutako eskaerak jaso eta aztertzeaz eta beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak ofizioz egiteaz jasotako datuak egiaztatzeko. Ondoren, datu horiei ja-



rraikiz ebazpen-proposamena egingo da, eta hori organo eskudunari helaraziko zaio, kasu honetan Udalaren Alkatetza-Presidentetza.

Behin baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerak onartu ondoren, eta, oinarrietan adierazitako aurkezpen-epea amaitzen denean, deialdian aurreikusitako kreditua banatuko da, bat etorritik artikulu honetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoekin eta kontuan hartuta araututako laguntzen gehieneko zenbatekoa, aurrekontua agortu arte.

Laguntzen zenbatekoa honako hau izango da kasu bakoitzean:

1. 900 euroko zenbateko finkoa esleituko zaie Abanto Zierbenan publikoarentzako irekita dagoen txikizkako merkataritza- edo ostalaritza-establezimendu baten titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoei, baldin eta hura itxi behar izan badute martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuari jarrikiz.
2. 600 euroko zenbateko finkoa esleituko zaie Abanto Zierbenan publikoarentzako irekita dagoen txikizkako merkataritza- edo ostalaritza-establezimendu baten titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoei, baldin eta eskaeraren aurreko hilabeteko fakturazioak gutxienez %75eko murrizketa izan badu alarma-egoeraren deklarazioaren aurreko seihileko naturalean egindako batezbestekoarekin alderatuta. Pertsona fisiko edo juridikoak ez baditu alta emanda diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko eskatzen diren sei hilabete naturalak, balorazioa egiteko jarduera-aldia hartuko da aintzat. Fakturazioaren murrizketa justifikatzeko, 5. puntuan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.
3. 600 euroko zenbateko finkoa esleituko zaie egoitza fiskala udalerrian duten eta merkataritza eta ostalaritzakoak ez diren beste sektoreetan jarduten duten enpresari individual autonomoei, baldin eta hura itxi behar izan badute martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuari jarrikiz.
4. 400 euroko zenbateko finkoa esleituko zaie egoitza fiskala udalerrian duten eta merkataritza eta ostalaritzakoak ez diren beste sektoreetan jarduten duten enpresari individual autonomiei, baldin eta eskaeraren aurreko hilabeteko fakturazioak gutxienez %75eko murrizketa izan badu alarma-egoeraren adierazpenaren aurreko seihileko naturalean egindako batezbestekoarekin alderatuta. Pertsona fisikoak ez baditu alta emanda diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko eskatzen diren sei hilabete naturalak, balorazioa egiteko jarduera-aldia hartuko da aintzat. Fakturazioaren murrizketa justifikatzeko, 5. puntuan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Pertsona fisiko edo juridiko bakoitzak soilik aurreko atal bateko dirulaguntza eskatu ahal du; beraz, laguntza gehienez 900,00 eurokoa izango da, eta zenbatekoa ordainketa bakar batean esleituko da. Laguntza hori txikizkako establezimendu txikien, negozioen eta autonomoen behin-behineko itxieratik edo fakturazioaren %75eko gutxieneko murrizketatik eratorritako kalte ekonomikoen eragin ekonomikoa arintzeko erabili beharko da, COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz.

200.000 euroko aurrekontu-partida ez bada nahikoa eskaera guztiei erantzuteko, proportzionalki banatuko da baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean, ezarritako gehieneko zenbatekoetan oinarrituta.

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dirulaguntza-eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

A. Pertsona fisikoen kasuan

- a) NAN (bi aldeak) edo AIZ, eta, hala eskatzen bada, pasaporteak.
- b) Errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua (Ekonomia Jardueren Ziurtagiria), jarduera ekonomiko nagusiaren EJZren epigrafea eta honako hauek adierazten dituenak: ekonomia-jarduera, alta emandako eguna, egoitza fiskala, eta, hala badagokio, jarduera garatzen den lokalarena.



- c) Langile autonomoen Araubide Berezian edo dagokion mutualitate profesionalean alta eman izanaren ebazpena/ziurtagiria.
 - d) Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi egin behar izan dituztenen kasuan, jarduera eteteko ebazpenaren ziurtagiria edo, hala badagokio, COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren ondorioz egindako eskaeraren egiaztagiria, 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
 - e) Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi ez dituztenen eta, alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturalaren batezbestekoarekin alderatuta, laguntza eskatu aurreko hilean euren fakturazioan gutxienez %75 murrizketa izan dutenen kasuan, murrizketa egiaztatzeko, kontabilitate-informazioa aurkeztu beharko dute (2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilabeteetatik dirulaguntza eskatzen den egunera bitartekoa):
 - Egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburuaren kopia.
 - Edo diru-sarrera eta gastuen egunerokoa.
 - Edo salmenta eta diru-sarreraren erregistro-liburua.
 - Edo erosketa eta gastuen liburua.

Pertsona fisikoa ez badago behartuta jardueraren bolumena egiaztatzen duten liburuak izatera, gutxienez %75eko murrizketa egiaztatu beharko du, zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez.

Pertsona fisikoak ez baditu bete diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko eskatutako sei hilabete naturalak, jarduera-epea hartuko da kontuan baloraziorako.
- B. *Pertsona juridikoen, sozietate zibilen, ondasun-erkidegoen edo pertsonalitate juridikorik gabeko bestelako erakunde ekonomikoen kasuan*
- a) Pertsona juridikoaren, sozietate zibilaren, ondasun-erkidegoaren edo pertsonalitate juridikorik gabeko bestelako erakunde ekonomikoen IFZ.
 - b) Pertsona juridikoaren, sozietate zibilaren, ondasun-erkidegoaren edo pertsonalitate juridikorik gabeko bestelako erakunde ekonomikoen errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua (Ekonomia Jardueren Ziurtagiria), jarduera ekonomiko nagusiaren EJZren epigrafea eta honako hauek adierazten dituena: ekonomia-jarduera, alta emandako eguna, egoitza fiskala, eta, hala badagokio, jarduera garatzen den lokalarena.
 - c) Sozietate zibilaren, ondasun-erkidegoaren edo pertsonalitate juridikorik gabeko bestelako erakunde ekonomikoen osaera-kontratua, behar bezala erregistratua.
 - d) Pertsona juridikoaren osaera-eskritura eta estatutu eguneratuak, dagokion erregistroan inskribatutakoak.
 - e) Administrariaren eta eskaera aurkezten duen pertsonaren botereen egiaztapena.
 - f) Administrariaren eta eskaera aurkezten duen pertsonaren NAN (bi aldeak) edo AIZ, eta, hala eskatzen bada, pasaporteak.
 - g) Administrariaren alta Gizarte Segurantzaren erregimenean.
 - h) Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi egin behar izan dituztenen kasuan, jarduera eteteko ebazpenaren ziurtagiria edo, hala badagokio, COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren ondorioz egindako eskaeraren egiaztagiria, 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
 - i) Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi ez dituztenen eta, alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko na-



turalaren batezbestekoarekin alderatuta, laguntza eskatu aurreko hilean euren fakturazioan gutxienez %75 murrizketa izan dutenen kasuan, murrizketa egiaztatzeke, kontabilitate-informazioa aurkeztu beharko dute (2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilabeteetatik dirulaguntza eskatzen den egunera bitartekoa):

- Igorritako eta jasotako fakturen erregistro-liburuaren kopia.
- Diru-sarrera eta gastuen egunerokoa.
- Salmenta eta diru-sarreraren erregistro-liburua.
- Erosketa eta gastuen liburua.

Pertsona juridikoa, sozietate zibila, ondasun-erkidegoa edo pertsonalitate juridikorik gabeko erakunde ekonomikoa ez badago behartuta jardueraren bolumena egiaztatzen duten liburuak izatera, gutxienez %75eko murrizketa egiaztatu beharko du, zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez.

Pertsona juridikoak, sozietate zibilak, ondasun-erkidegoak edo pertsonalitate juridikorik gabeko erakunde ekonomikoak ez baditu alta emanda diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeke eskatzen diren 6 hilabete naturalak, balorazioa egiteko jarduera-aldia hartuko da aintzat.

Dirulaguntza-eskaera egin duen pertsona fisikoak, pertsona juridikoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak edo pertsonalitate juridikorik gabeko erakundeak zorren atzerapena edo zatikapena esleituta badu Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekin, Bizkaiko Foru Ogasunarekin edo Udal Diruzaintzarekin, eskaerarekin batera horren esleipen-ebazpena eta zorrik ez duela dioen ziurtagiria (atzerapenaren esleipena eta gerokoa) aurkeztu beharko ditu.

6 Eskaerak aurkeztea eta epea

Laguntzak telematikoki izapidetuko dira aintzat hartuta, batetik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua mugatu egiten duela pertsonen zirkulazio-askatasuna eta, ondorioz, ezin dela bulego edo instalazio publikoetara joan; eta, bestetik, osasun eta langileen arloko organo eskudunek hainbat ebazpen eman dituztela aurrekoak ez diren lan-modalitateak ahalbidetzeko eta udal-instalazioetan langileen presentzia minimizatzeko.

Eskaerak, eskatutako dokumentazio eta informazioarekin batera, honela aurkeztuko dira:

1. Bide telematikoz, gure egoitza elektronikoen bidez, honako helbide honetan: <https://abanto-zierbena.eus>. Egoitza elektronikoko identifikazioa CI@ve sistemen bidez egiten da. Sistema horrek gako itunduetan oinarritutako identifikazio-sistemak (CI@ve PIN eta CI@ve pertsonala) eta ziurtagiri elektronikoak (DNI-e barne) erabiltzeko aukera ematen du.
2. Salbuespen gisa, eskaera telematikoki aurkezteko baliabiderik edo gaitasunik ez badago, posta elektronikoz egin ahal izango da: adl1@abanto-zierbena.eus. Ondoren, jatorrizko dokumentazioa postaz bidali beharko da helbide honetara: El Minero etorbidea 2. 485550 Abanto Zierbena. Kasu horietan, administrazioak eskubidea izango du aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu eta beste administrazio-erregistro batzuekin alderatzeko.

Ez dira onartuko epez kanpo aurkeztutako laguntza-eskaerak.

Eskaerak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio konpon dezala gehienez ere 3 egun balioduneko epe luzaezinean. Halaber, jakinaraziko zaio hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Norberaren konturako langile bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztu ahal da. Eskaera osorik aurkeztu beharko da. Erabat edo partzialki aurkezten ez diren datuak ez dira aintzat hartuko balorazioa egiteko.

Eskaerak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izango da, oinarriok Udalaren webgunean (www.abanto-zierbena.eus) argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita, eta



hamar eguneko epea emango da osorik ez dauden edo akatsen bat duten eskaerak konpontzeko.

7. Laguntzak justifikatzea eta ordaintzea

Laguntza horiek justifikatzeko eta haien helburua betetzeko, oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Beraz, laguntza ematea ebatzi ondoren, onuradunari egin beharreko ordainketa izapidetuko da, alde batera utzi gabe pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak buruz aurreko artikuluan aurreikusitakoa.

Laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, oinarri hauetako I. eranskinen eskatzaileak adierazitako banku-kontuan, eta ordainketa bakarra izango da.

8. Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak

Honako betebeharrak hauek bete behar dira:

1. Jarduera hilabeteko epean berrabiaraztea, alarma-egoeraren amaiera deklarazio denetik edo agintari eskudunak etendako jarduera berriz garatzeko baimena ematen duenetik aurrera zenbatzen hasita, eta jarduerari gutxienez sei hilabetez eustea, jarduera berriz hasi zenetik aurrera zenbatzen hasita.
2. Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako jarduketan mende jartzea.
3. Jasotako funtsak itzultzea, baldin eta laguntza lortzeko baldintzak faltsutu edo hori eragotzi zezaketenak ezkutatu badira, edo dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako finantza-egiaztapeneko edo -kontrolako jarduketei aurre egin, aitzakia jarri, oztopatu edo uko egin bazaie.
4. Laguntza hauen onuradunak laguntza eman beharko dute, eta Udalari dagozkion kontrol-eginkizunak betetzean eskatutako ebidentzia guztiak eman beharko dituzte.
5. Laguntza hauen onuradunak, dirulaguntzaren eskaera aurkeztuta, baimena ematen diote berriaz Abanto Zierbenako Udalari beste administrazio eta enpresa publiko batzuei informazioa eskatzeko edo emateko, edozein fasetan hura egiaztatzea eta kontrolatzeko.
6. Laguntza hauen onuradunak oinarri hauen atalean aipatzen den dirulaguntzen araudi orokorrean araututako erantzukizunen, arau-hausteen eta zehapenen mende daude.

9. Jarraipena, ikuskaritza eta kontrola

Udalak egokitzen jotzen dituen ekintzak gauzatu ahalko ditu, oinarri hauetako betekizunak betetzen direla kontrolatzeko.

Onuradunak eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute, hala badagokio.

Abanto Zierbenako Udalak eskubidea du onuradunak Erantzukizunpeko Adierazpenen emandako datuak berrikusi eta egiaztatzeko. Deialdi honetan eskatutako betekizunak bete ezean, Abanto Zierbenako Udalak emandako laguntzaren edo dirulaguntzaren zenbatekoa eta haren legezko interesak itzultzeko eskatu ahalko du.

Onuradunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, ulertuko da atzera egin duela eskaeran.

10. Informazioa emateko betebeharra datu pertsonalean tratamenduan

Bat etorri datuen babeserako arloan indarrean dagoen araudiarekin, jakinarazten da Abanto Zierbenako Udalak tratatutako dituela laguntzak eskatzeko prozesu honetan parte hartzen duten edo, hala badagokio, esleipendun izan daitezkeen eskatzaileek emandako datu pertsonalak. Datu horiek bildu eta tratatzen dira laguntzak emateko prozesua kudeatzeko eta oinarri hauetan adierazitako betebeharrak betetzen direla kontrolatzeko, betiere bat etorri sektore publikoaren kontratazioari buruzko araudiarekin —9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren



2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak— eta beste administrazio-lege batzuekin.

Datu horiek biltzea eta tratatzea zilegi da, sektore publikoko araudiaren legezko betebeharrak betetzeko premian oinarrituta, eta, hala badagokio, laguntza horien emakida kudeatzeko, esleipendun suertatzen denean. Datuak isilpean tratatuko dira, eta soilik jakinaraziko zaizkie Kontu Auzitegiari eta arlo honetan eskumena duten administrazioko beste organo batzuei, bai eta beste erakunde batzuei edo hirugarrenei ere, baldin eta datuak babesteko indarreko legerian ezarritako eskakizunak betetzen badira. Sektore publikoko arauetan eta aplikatu beharreko beste arau batzuetan ezarritako epean gordeko dira datuak.

Datu horien titularrek datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta datuen aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, Abanto Zierbenako Udalari jakinarazpen bat bidalita, eta honako hau adierazita gaian: Erref. Datuen babesa. Halaber, aplikatu ahal denean, ukitutako pertsonen datuak eramateko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, aurretik ezarritako premisei jarraikiz.

Egokitzat jotzen duenean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara (AEPD) jo ahal izango dute.

Halaber, informazio gehiago eskuratu ahalko dute honako helbide elektroniko honetan: Abanto.Zierbena@Abanto.Zierbena.net

11. Araubide juridikoa

Deialdi hau interpretatzeko eta aplikatzeko, laguntza hauen xederako aplikatzekoak diren nazioko eta Europako arauak beteko dira, berariaz honako hauek:

- Batzordearen 1998/2006 (EE) Erregelamendua, 2006ko abenduaren 15ekoa, Minimis laguntzei buruzko Tratatuak 87. eta 88. artikulua aplikatzeari buruzkoa.
- Batzordearen 2003/361/CE Gomendia, 2003ko maiatzaren 6koa (DOL 124, 2003ko maiatzaren 20).
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.
- Toki Administrazioa arautzen duen estatuko oinarritzko legeria (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 72. artikulua; Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen 40., 189.2 eta 214.2 artikulua; martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina).
- Abanto Zierbenako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra.

Dirulaguntzak emateko erabakiaren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, lurralde-ordezkaritza honetan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoa betez.



I. ERANSKINA
ESKAERA-INPRIMAKIA

Norberaren konturako langilea edo enpresa identifikatzeko datuak

Enpresaren izena:

Legezko ordezkaria:

IFZ:

Harremanetarako datuak jakinarazpenak egiteko

Harremanetarako pertsona:

Helbidea:

Telefono-zenbakia:

Faxa:

Posta elektronikoa:

Laguntza kobratzeko banku-kontuaren zenbakia

IBAN:

Eskera honekin batera aurkeztutako dokumentazioa

A) Pertsona fisikoen kasuan:

- Eskatzailearen NAN/AIZ.
- Laguntza-eskaera interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatuta, ezarritako ereduaren arabera.
- Eskaera ordezkariak eginez gero, ordezkari-tzitza-baimena aurkeztu beharko du, ezarritako ereduaren arabera.
- Errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua. honako hauek adierazten dituenak: ekonomia-jarduera, alta emandako eguna, egoitza fiskala, eta, hala badagokio, jarduera garatzen den lokalarena.
- Langile autonomoen Araubide Berezian edo dagokion mutualitate profesionalean alta eman izanaren ebazpena/ziurtagiria.
- Jarduera eteteko ebazpenaren ziurtagiria edo, hala badagokio, COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren ondorioz 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egindako eskaeraren egiaztagiria.
- Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi egin behar izan dituztenen kasuan, jarduera eteteko ebazpenaren ziurtagiria edo, hala badagokio, COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren ondorioz egindako eskaeraren egiaztagiria, 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi ez dituztenen eta, alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilabeteko naturalaren batezbestekoarekin alderatuta, laguntza eskatu aurreko hilean euren fakturazioan gutxienez %75 murrizketa izan dutenen kasuan, murrizketa egiaztatzeko, kontabilitate-informazioa aurkeztu beharko dute (2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilabeteetatik laguntza hau eskatzen den egunera bitartekoa):
 - Salmenta eta diru-sarreraren erregistro-liburuaren edo diru-sarreraren erregistro-liburuaren kopia.

Pertsona fisikoa ez badago behartuta jardueraren bolumena egiaztatzen duten liburuak izatera, gutxienez %75eko murrizketa egiaztatuta beharko du, zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez.



Pertsona fisikoak ez baditu alta emanda diru-sarrereren murrizketa egiaztatzeko eskatzen diren 6 hilabete naturalak, balorazioa egiteko jarduera-aldia hartuko da aintzat.

- Erantzukizunpeko adierazpena, interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatuta, egoitza elektronikoa ezarritako ereduaren arabera.
- B) Pertsona juridikoen, sozietate zibilaren, ondasun-erkidegoen edo pertsonalitate juridikorik gabeko beste erakunde ekonomiko batzuen kasuan:
- Laguntza-eskaera interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatuta, egoitza elektronikoa ezarritako ereduaren arabera.
- Eskaera ordezkariak eginez gero, ordezkaritza-baimena aurkeztu beharko du, egoitza elektronikoa ezarritako ereduaren arabera.
- Pertsona juridikoaren, sozietate zibilaren, ondasun-erkidegoaren edo pertsonalitate juridikorik gabeko beste erakunde ekonomiko batzuen errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua, honako hauek adierazten dituenak: ekonomia-jarduera, alta emandako eguna, egoitza fiskala, eta, hala badagokio, jarduera garatzen den lokalarena.
- Sozietate zibilaren, ondasun-erkidegoen edo pertsonalitate juridikorik gabeko beste erakunde ekonomiko batzen osaera-kontratua, behar bezala erregistratua.
- Osaera-eskritura eta estatutu eguneratuak, dagozkion erregistroan inskribatuta.
- Legezko ordezkariaren botereak.
- Legezko ordezkariaren NAN/AIZ.
- Administratzaileari dagokion Gizarte Segurtasunaren araubidean alta eman izanaren egiaztagiria.
- Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi egin behar izan dituztenen kasuan, jarduera eteteko ebazpenaren ziurtagiria edo, hala badagokio, COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren ondorioz egindako eskaeraren egiaztagiria, 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuan (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutakoaren ondorioz establezimenduak itxi ez dituztenen eta, alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilabete naturalaren batezbestekoarekin alderatuta, laguntza eskatu aurreko hilean euren fakturazioan gutxienez %75 murrizketa izan dutenen kasuan, murrizketa egiaztatzeko, kontabilitate-informazioa aurkeztu beharko dute (2020ko martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilabeteetatik laguntza hau eskatzen den egunera bitartekoa):
- Egindako fakturen erregistro-liburuaren kopia.
- Pertsona fisikoa ez badago behartuta jardueraren bolumena egiaztatzen duten liburuak izatera, gutxienez %75eko murrizketa egiaztatu beharko du, zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez.
- Pertsona fisikoak ez baditu alta emanda diru-sarrereren murrizketa egiaztatzeko eskatzen diren 6 hilabete naturalak, balorazioa egiteko jarduera-aldia hartuko da aintzat.
- Erantzukizunpeko adierazpena, interesdunak, eskatzailearen ordezkariak edo erakunde eskatzaileak sinatuta, egoitza elektronikoa ezarritako ereduaren arabera.

Abanto Zierbena, 2020koaren ...(a).

(eskatzailearen sinadura)



II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak, (NAN zenbakia:

ARDURAZ JAKINARAZTEN DU: (adierazi dagokiona)

- Egindako jarduerari eragin egin dio martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) xedatutako itxierak, eta, hala ez bada, egindako jarduerak fakturazioa murriztu du dirulaguntza hau eskatu aurreko hilabetean, gutxienez %75, alarma-egoera deklaratu aurreko sei hileko naturalaren batezbestekoa-rekin alderatuta edo, ez badago alta emanda diru-sarreraren murrizketa egiaztatzeko eskatzen diren 6 hilabete naturalak, altan egondako epearen batezbestekoarekin alderatuta.
- Alarma-egoeraren ondorioz establezimendua itxi behar izan duen jarduera ez da konpentsatu fakturazioan izandako hazkundearekin, eskatzaileen sareko edo telefono bidezko negozio-bolumena handitzeari esker.
- Hala badagokio, eskatzaileak ABEEE izapidetu behar izan du enpresaren biziraupena eta enplegua ahalik eta gehien mantentzea bermatzeko.
- Eskatzaileak bere gain hartzen du laguntza oinarri hauetan ezarritako xedeetara bideratzeko konpromisoa.
- Eskatzailea ez dago sartuta onuradun eta ordainketaren hartzaile izateko debekuetan, dirulaguntzen araudiaren arabera, eta konpromisoa hartzen du azaroaren 17ko 38/2003 Legean ezarritako dirulaguntzen onuradunen betekizunak betetzeko.
- Eskatzaileak konpromisoa hartzen du laguntza hauen eskaera aurkeztu aurretik xede bererako jasotako beste dirulaguntza edo laguntzen berri emateko, bai eta eskaera aurkeztu ondoren eta berau ebatzi aurretik jasotako laguntzen berri ahalik eta lasterren emateko ere.

Abanto Zierbena, 2020koaren ...(a).

(eskatzailearen sinadura)



III. ERANSKINA

ORDEZKARITZA-BAIMENA BIDE TELEMATIKOEN BIDEZ

..... jaunak/andreak
(IFZ:; egoitza fiskala: (udalerrria)
(kalea) (zenbakia); ...

Entitatea(izensoziala):; IFZ:;
egoitza fiskala: (udalerrria) (kalea)
(zenbakia); ...

Haren izenean jaunak/andreak edo
legezko ordezkari gisa (IFZ:; egoitza fiskala: (udalerrria)
.....(kalea)(zenbakia); ...

BERE ORDEZKARITZA EMATEN DIO

.....jaunari/andreari (IFZ:),
sinatzaile gisa edo Abanto Zierbenako Udalaren egoitza elektronikoa bide telematikoz aurkezteko
Abanto Zierbena udalerrian jarduera ekonomikoa berraktibatze laguntzen eskaera, COVID-19ak
eragindako krisi-egoera kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz.

Baimen hau ematen da bide telematikoz aurkezteko zein aurkezten den laguntza-eskaera dela-eta
egin daitekeen edozein jakinarazpen jasotzeko.

Halaber, baimen-emaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak modu automatizatuan trata-
tzeko, adierazpena edo jakinarazpena bide telematikoz aurkezteko baino ez.

ONESPENA

Ilatzi hau sinatuta, ordezkariak onartu egiten du emandako ordezkari eta egiaztatzen du bai-
men-emailearen edo -emaileen sinadura egiazkoa dela.

Egunak eta sinadurak

Eguna:

Baimen-emailea

Sinatuta:

Ordezkaria

Sinatuta: